

» DISKOA

Gorde eta zabaldu gertatutakoa



Iker Barandiaran

40 urte bete dira Polizia armatuak Iruñean San Fermin jaiak ospatzen ari zirenean zezen plazara tiroka sartu eta herrian zegoen askatasun egarria itotzeko ahalegin sutsua egin zue-netik. Eraitza: su armazko hamaika zauritu eta German Rodriguez gaztea eraila. Jakina, ez dute inoiz inor izugarrikeria horregatik epaitu ezta zigortu ere.

Iruñean eta beste leku ugarian, ordea, jendeak ez du sarraski hura ahaztu eta egia, justizia eta erreparazio bila salatzen jarraituko du etsi gabe. Testuinguru horretan, Gor diskoetxe beteranoko kideei eta hurbileko lagunei bururatu zitzaizen musikaren bidez ere Germanen eta gertatutakoaren memoriari eutsi eta belaunaldi gazteagoei jazotakoa helaraztea. Esan eta egin, Gor diskoetxeko kideek ohi duten bezala atzoko eta gaurko musikariak erakarri dituzte proiektura eta Nafarroako hamar musika ekimen batu dituzte bilduma honetan. Disko gogoangarri honek izango dituen etekin guztiak "Sanfermines 78 Gogoan" ekimenera bideratuko dira.


Hamar kanta horietatik hiru ez dira berriak, baina horien hitzak bat datoz gertatutakoarekin eta salaketarekin: La Venganza de la Abuela izan zen El Drogas musikari ezagunak 90eko

San Fermín 78 gogoan

ASKOREN ARTEAN

Gor, 2018

Balerdi Balerdi taldeko kideak.
"Ahaztezina da" pieza ekarri dute diskora.



hamarkada bukaeran sortu zuen proiektua, eta *Zua* kaleko aldarri metaleroa; La Chula Potra raperoak idatzitako *German* pieza (eta testu) ikaragarriak ez du iraungitze datarik; ezta memoria historikoaren ahots leun eta sentikorra den Fermin Balenciak eta haren *Hilarria* triste baina itxaropentsuak ere.

Gainontzean ez dira falta rock amerikarra erabat nafartu eta euskal poparekin ezkontze-ko gaitasuna duten Balerdi Balerdi taldekoak –*Ahaztezina da* piezarekin–; hardcore melodikoaren sua itzaltzen inoiz utziko ez duen

Leihotikan –*Zakurren dantza madarikatua*–; indarra, gaitetasuna, punka eta leku(n) berriren bat oso presente duen Altxatu sasotsua –*Kantu bat*–; street-punk edo punk-Oi!a lanabes duten Sofokaos –*Bala bat*– zein Streetwise –78 pieza– talde grinatsuak; bertso eskaintza egin duen Iruñea Soviet Band; eta ekimen honetarako espresuki elkartu den antzinako Los Del Rayo: rock kale-tarra eta iraganeko tempoak maisuki berpiztu ditu taldeak *Los hombres de gris* interpretatu eta grabatzeko. ■